

GORPUZBIDEA.—Azkueren Hiztegia eskuratzeaz, inoiz harriturik agertzen gara, hitzik arruntenak falta direla ikusteaz. Adibidez, *Oztopo*. Eta horren antzekoa dugu *Gorpuzbide* edo *Gorputz-bide* ere. Harrigarria benetan hain hitz arrunta izanik jaso gabe gelditzea. Hala ere, Azkueren lana ikaragarritz handia izan zela inork ukatu ezinezkoa da.

Plazido Mujikak bere *Diccionario Castellano-Vasco* (1965) hartan honela jaso zuen: «*camino funerario* = anda-bide BG, zurrunbide S, gorpu-bide, gorputz-bide».

Baina ez du bide horren izate zehatza argitzen, zeren elizatik hilerrirainokoa ere *camino funerario* izan daitake, eta *gorputz-bidea* auzo edo baserritik elizara artekoa baizik ez da. Eibarren *korputz-bidia* erabiltzen dugu eta hori zer den argi eta garbi agertu zigun Toribio Etxebarriak *Lexicón del Euskara dialectal de Eibar* (1965-1966) deritzan hiztegi hartan: «*Korputz-bidia*. El camino rural por donde se lleva a los muertos al pórtico de la iglesia, para el entierro. Korputz-bidia eta baita eliz-bidia esaten jako, korputzak Eliz-atarira jatxitzeko izentautako bidiari».

EUSKARA BATUAREN MERITOAK, DEL BURGO-REN USTEZ.—Politikoez aspaldi erakutsi ziguten azalez sendo direla eta kulturaz mehar. Del Burgo-k ordea, azal sendoaz gainera oso gogorra erakutsi digu, Madrid-eko Club Siglo XXI elkartean otsailaren hasieran «Nuevas ideas» zeritzan hitzaldiaren bidez. Erdal kazetariak laster aisatu zuten berri hori, ez ordea bakearen izenean. Baina, idea berririk ba ote da diktadore kasta hortan?

Han agertu zituen ideetako egi bakarra: «Somos una nación y no tan sólo un Estado. Los estados se improvisan, cambian, e incluso desaparecen. Las naciones permanecen».